

1969ko promozioaren 50. urteurrena

Urriaren 19an, 1969ko promozioa bildu zen Fakultatean, bere 50. urteurrena zela eta. Topaketan, gure historiako gertakari garrantzitsuak gogoratzeko aukera izan zen, esaterako, erdiko eraikinaren inaugurazioa, gertakari horren protagonista izatea egokitu baitzitzairen. Horrez gain, tarte bat utzi zen bisita bat egiteko, eta batez ere, hainbeste denboraren ondoren, halako testuinguru berezian berriro elkar ikusteak dakarren emozio bizietarako.

Han zeuden gure IRI komunitateko kide izandako Salvador Barbera, Francesca Antolin eta Inmaculada Gallastegui. Plazer handia izan zen haiei harrera egitea eta une horiek haiekin partekatzea.



Kulturaren gaineko BEZa, esperimentu

2013ko otsailaren 17an, Goya Sarien hogeita zazpigarren galan, Enrique Gonzalez Macho garai hartako Espainiako Zinemaren Akademiako presidenteak eta estatuatxo desiratu irabazi zutenek gogor kritikatu zuten orduko Kultura ministro José Ignacio Wert, zinemari eta arte eszenikoei Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) igoera izugarria (% 8tik % 21era) aplikatzeagatik egun gutxi batzuk lehenago.

Nola eragiten die BEZaren igoerak zerga bilketari, zinema industriaren diru sarrerei eta kontsumitzaileen gastuari? Gai horiek aztertzeke, Victoria Ateca, Javier Gardeazabal eta Arantza Ugidosok (Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Análisi Ekonomikoaren Oinarriak II. Saileko irakasleak) ikusi zuten ezen zerga igoerak ez zuela eragin bera izan Espainiako eskualde guztietan.

Kanarietako Autonomia Erkidegoak ez du BEZik biltzen; horren ordez, IGIC zergak (Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorra), ehuneko bi soilik igo zenak, Kanarietako ondasun eta zerbitzuen entregak zergapetzen ditu.

Eskualdeen arteko alde horrek bidea ematen du BEZaren igoerak familien gastuan duen eragina aztertzeke, esperimentu natural gisa. Esperimentu naturaletatik eratorritako datuetan oinarritutako inferentzia ekonometrikoa ekonomian geroz eta gehiago erabiltzen den metodologia da.

Penintsulan (BEZa igo egin zen) bizi diren familiek zinemari eta arte eszenikoetan egindako gastua eta BEZaren igoera jasan ez zuten Kanarietako familia alderatu ziren (Kanarietako familia horiek kontu handiz aukeratu ziren gainerako erkidegoetako familien oso antzeko ezaugarriak izan zituzten), eta horrela zenbatetsi zuten zer eragin izan zuen zerga igoerak zinemari eta arte eszenikoetan egindako gastuan.

Emaitzak Journal of Cultural Economics aldizkarian argitaratu dira ("On the response of household expenditure on cinema and performing arts to changes in indirect taxation: a natural experiment in Spain") <https://doi.org/10.1007/s10824-019-09357-0>

Javier Gardeazabal

Ikasle berriei harrera

Irailaren 5ean jaso genituen lehen aldiz gure Fakultatean ikasketak egitea erabaki zuten ikasleak. Harrera eguna normaltasunez eta gogo biziz garatu zen.



Tecnalia ikasgelako jarduerak

Azaroaren 12an, Tecnalia-Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen «Ekonomia eta Berrikuntzaren Kudeaketa» ikasgelaren esparruan, Mission Oriented R&I tailerra egin zen, Tecnaliak (Jesus Sanz eta Eva Arrilucea) eta Euskampusak (Elena Urdaneta) antolatua. Bertan, Iñaki San Sebastian, Igor Campillo, Leire Bilbao, Cristina Oyon, Ricardo Diez, Guillermo Dorronso, Cristina Astier, Sara de la Rica eta Jon Barrutiak hartu zuten parte.



Ikerkuntzaren artean nazioarteko sareak eratzeko proiektua, 2019

Ikerkuntzaren artean nazioarteko sareak eratzeko 2019ko proiektuaren emakida lortu du Txileko Adolfo Ibañez Unibertsitateko UAI Complexity Center-en eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia Publikoaren Institutuaren (EPI) arteko lankidetzak.

Berriki jakin dugunez, ikerkuntzaren artean nazioarteko sareak eratzeko 2019ko lankidetzaren proiektu lehiakorretako bat eman zaio Adolfo Ibañez Unibertsitateko UAI Complexity Center (Santiago, Txile) eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Publikoaren Institutuaren (EPI) arteko lankidetzari. Proiektu horiek Txileko Hezkuntza Ministerioiko Ikerketa Zientifiko eta Teknologikorako Batzorde Nazionalak (CONICYT) urtero egiten duen lehia-deialdiaren barruan kokatzen dira.

Lehiaketa horretan parte hartzeko arrazoia unibertsitate horietako zenbait irakasle ikerketa gaitan gauzatzen ari di-

ren lankidetzak estua izan da. Lankidetzak horren isla da Rolando de la Cruz Mesía doktoreak (emandako proiektuaren ikertzaile nagusia eta Adolfo Ibañez Unibertsitateko Zientzia eta Ingeniaritza Fakultateko irakaslea) eta Vicente Núñez Antón irakaslea, (Ekonomia Publikoaren Institutuko ikertzaile) duela urte batzuetatik gauzatu duten lankidetzak, baterako argitalpenak egin baitituzte eta Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak finantzatzeko ikerketa-proiektuetan parte hartu baitute.

De la Cruz doktorea proiektu horietako lantaldeko kidea da. Ekonomia Publikoaren Institutuko ikertzaile hauek hartzen dute parte proiektu horretan: Pilar González Casimiro, Vicente Núñez Antón, Ignacio Díaz-Empananza Herrero, Francisco Javier Fernández Macho eta Josu Arteche González.

Saria «Ey Corporate Finance Woman of the Year» txapelketa nazionalan

Marta Martínez Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzeko 6. mailako ikaslea, Ernst & Young-Ey multinazionalak antolatutako «Ey Corporate Finance Woman of the Year» izeneko finantzen txapelketa nazionalan parte hartu zuen azaroaren 21ean, osteguna. Nahiz eta adar juridikoa aukeratu eta bulegoan lan egiten dudana, parte hartu egin nuen eta sarirako izendatu ninduten beste hamabaitzirekin batera. Hogei hautagaiek hamabi or-

duko txapelketa oso bat jokatu zuten Madrilen, dena ingelesez. Azkenean, epaimahaiak bozkatu egin zuen eta Marta Espainiako hirugarren postuan geratu zen. Zorionak Marta!



Dekano taldearen bilera

Uztailaren 24an, Fakultateko dekanoko taldea Gasteizko unitatean bildu zen, 2018-2019 ikasturtea ixteko eta Cándido Arroyori eskerrak emateko egindako lanagatik. Cándido Arroyo Gasteizko Enpresa Es-

koloko administratzailea izan da eskola hori martxan jarri zenetik, eta Fakultateko Gasteizko unitatearen koordinatzailea duela hiru urtetik. Orain utzi egingo gaitu, erretiroa hartu baitu.



Vicente Núñez irakaslea International Biometric Society (IBS) elkarteko idazkari eta diruzaina

IBS sei mila kide inguruk osatzen duten elkarte zientifiko bat da, eta bizitzaren zientzietan teoria eta metodo estatistiko eta matematikoak garatzea eta aplikatzea sustatzen du; barne hartuta nekazaritza, zientzia biomedikoak eta osasun publikoko zientziak, ekologia, ingurumen zientziak, basogintza eta antzeko arloak. Elkartearen webgunean adierazitakoaren arabera, emandako 893 botoak aztertu ondoren, Vicente Núñez irakaslea hautatu dute idazkari eta diruzain. Hiru urtez izango du kargua, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Noiztik daukazu harremana elkartearekin?

Estatu Batuetan ikasten nengoetik. 1988. edo 1989. urtean egin nintzen elkarteko kide. Ikasle kide izan nintzen, eta Espainiara itzuli nintzenean, Espainian zegoen atalera joan behar izan nuen, International Biometric Societyren barruan dagoen Espainiako Biometria Elkartera, alegia.

Zer motatako kideak daude elkartean? Unibertsitatekoak dira guztiak?

Ez, unibertsitateko jendea dago, baina baita instituzio medikoe-

takoa, gobernukoa eta ospitaleetakoak ere. Horrez gain, kide batzuk unibertsitatek atera eta, egiten zuten gauza berberetatik kobratzeko asmoz, euren konpainia sortu duten pertsonak dira. Espainia mailan ere elkarte askotarikoa da.

Enpresa farmazeutikoak ere egongo dira elkartean.

Bai, baita ere. Biltzarretan gonbidatuak saioak egoten dira, eta, zenbait saiotan, horrelako gaiak jorratzen dira. Hain zuzen ere, enpresa farmazeutikoek, argitaletxeek eta abarrek euren produktuen berri ematen dute. Biltzarra ekitaldi oso garrantzitsua da; eskuarki, 800 edo 900 lagun inguruk parte hartzen dute.

Zuk egiten dituzun ikerketek zerikusia dute edo izan dute biometriarekin?

Nik gai horretan eta beste askotan egiten dut lan. Elkarte askotako kide naiz; honetakoa, besteak

beste. American Statistical Association elkarteko kide naiz; Royal Statistical Societykoa; elkarte batzuetako fellow (izendapen bidez); International Statistical Instituteko elected member, merezimenduen

arabera izendatua, alegia, eta Espainiako Biometria Elkarteko eta Espainiako Estatistika Elkarteko kide. Egia esateko, elkarte askotako kide naiz, eta kargu jakin batzuk betetzen ditut horietako askotan.

Nola lotu dira zure lanak eta ikerketak gai horiekin? Zertan egin duzu lan, esaterako, biometriaren arloan?

Bada, gauza askotan. Tesia egin nuenean, datu longitudinalen metodoak egin nituen, biologian eta medikuntzan aplikatzeko, eta hori jorratzen da, besteak beste, elkarte honetan. Doktore bilakatu baino lehen, artikulua bat argitaratu nuen Biometrics aldizkari prestigiosuan, elkarte honen aldizkari bereizgarrian, alegia. Baina ez naiz

elkarte honetako kide gai honetan lan egiten dudalako. Besterik gabe uste dut elkarteetako kide izan behar dugula, hala, beste unibertsitateetako jendea ezagutzen dugulako eta beraiekin elkarlanean aritu gaitzkeelako.

Zerk bultzatu zaitu kargu honetarako aurkeztera?

2010. urtean Brasilen egin zen biltzarreko Batzorde Zientifikoko presidenten izan nintzen. Zuzendaritza Batzordean egon nintzen bi urtez, elkarte hasi zenean, baina ez dut urte zehatza gogoratzen. Ez da baxterik ohikoa espainiar bat Zuzendaritza Batzordean sartzea. Izan ere, europarrei ematen zaie botoa, eta Espainiak ez dauka Alemaniak, Herbehereek, Belgikak edo Ingalaterrak bezain beste kide. Horregatik, eskuarki, Europako kideak –uste dut lau direla– ez dira espainiarrak izaten, eta, beraz, oso ezohikoa da idazkari eta diruzain karguaren aukeraketa ere espainiar batek irabaztea.

Zorionak, Vicente! Zortea alde izan dezazula kargu honetan!

Irakaskuntza eta ikerketa jardunbide egokiak nazioartekotzea Sarrikitik Mexikora

Guadalajarako Unibertsitateko (Mexiko) Ekonomia eta Administrazio Zientzien Unibertsitate Zentroko (CUCEA) Graduondo Koordinazioak gure Fakultateko irakasle eta ikertzaile bat gonbidatu zuen hitzaldi magistral bat ematera.

Hitzaldi horren izenburua honako hau izan zen: «Kasuen eta haien sinergien azterketa. Nola biziraun nuen unibertsitatean gustatzen zaidana egiten?». Hitzaldia unibertsita-

teko ikasle, ikertzaile, irakasle eta kudeatzaileentzat zen, eta 2019ko urriaren 22an egin zen.

Hitzaldi horretan, Oskar Villarreal (FEIL, EAEI) ikasgelan irakaskuntza kasuak zergatik eta zertarako erabili behar diren eta kasu azterketaren metodologia zergatik eta zertarako erabili behar den aztertzen zuten.

Gai horiek jorratzean, ikuspegi desberdinak sartu ziren irakaskuntza, transferentzia

eta ikerketaren eskutik. Eta erantzunetan, kasu azterketetan oinarritutako ikaskuntzaren onurak, abantailak eta desabantailak jorratu ziren. Kasu azterketen bidez ikertzeko prozesuan, merituak sortzearen garrantziaz hitz egin zen, baita irakasle taldeen eta ikerketa taldeen garrantziaz eta fruitu eta emaitza desberdinen bila aritzeaz sor daitezkeen sinergiezen ere.

Oskar Villarreal



Ekonomiaren irakaskuntzaren VIII. jardunaldia

Azaroaren 8an Ekonomia Irakaskuntzari buruzko VIII. Jardunaldiak egin ziren Sarrikon. Honako hauek izan ziren hizlari: Irati Cifuentes, Jose Jimenez Criado, Clara Salanueva eta Tomás Guajardo 2019ko azaroaren 8an, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (Sarriko) Gradu Aretuan, Ekonomia Irakaskuntzaren VIII. Jardunaldia egin zen. Aurreko edizioetan bezala, ekonomiako irakasleen artean esperientziak, baliabide didaktikoak eta hausnarketak trukatzeko gune bat prestatu nahi izan zen, bai Batxilergoko ikastetxeetan beren hezkuntza-lana betetzen badute, bai beren esparrua Unibertsitatea bada. Irati Cifuentes, Pepe Jimenez, Clara Salanueva eta Tomas Guajardoren aurkezpenek helburu bera partekatu

zuten: unibertsitate aurreko eta unibertsitateko hezkuntza eta-pan ekonomiaren irakaskuntza hobetzea. Ekitaldia itxi zuen mahai-inguruan argi geratu zen guztion artean ikasgelan egiten dugun lana hobetzen jarraitu behar dugula, eta ekonomia benetako subjektuei, pertsoneri, hurbildu behar diegula.

Topaketak izan duen harrera onak 2008an hasitako bideari jarraituzera bultzatu gaitu. Zortzigarren edizio honetan, bereziki, gaurkotasan handiko bi alderdi jorratu ziren. Batetik, ekonomialari baten etikaren eta praktika onen garrantzia. Bigarrenik, ikasleen motibazioa lantzen duten metodologia alternatiboak erabiltzen dituzten irakaskuntza esperientzia berritzaileak aurkeztu zituzten.

Euskal Autonomia Erkidegoko Arriskuen Gerentziari buruzko II. Biltzarra

Urriaren 17an, AGERSen bigarren biltzarra egin zen Bilbon, Biltzar hori UPV/EHUko Aktuariotza eta Finantza Zientzietako Unibertsitate Masterrarekin batera antolatuta zen. Bigarren aldia da Arrisku eta Aseguruen Gerentziarako Espainiako Elkartearen (AGERS) Biltzarra Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dela. Networking-erako egun oso emankorra egin zen Bizkaia Aretuan, arriskuen eta aseguruaren sektoreko profesionalen artean ezagutzak eta ideiak trukatu baitziren.

Noemí Peñaren (UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Kanpo Harremanen zuzendaria) eta Javier Álvarez (CEA koordinatzailea, arriskuen arloa) ongiatorriaren ondoren, inaugurazio hitzaldia Itziar Agirre Berriotxo, Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko sailburuordeak eman zuen. Ondoren, David Corredor Gómez MAPFRE Iberia Negocios Globales enpresako zuzendariak arriskuei eta haien bilakaerari buruz hitz egin zuen, eta honako

galdera hau egin zuen: zer aldatu da arriskuen zuzendarientzat?

Interes eta gaurkotasan handiko beste gai batzuek gain, haragi metxatuak eragindako listeriosi agerria ere azaldu zen panelean. «Zer eginkizun du aseguruak elikadura intoxikazioko kasuetan?». Moderatzailea Jesús Velasco izan zen, Grupo UVESCOko finantza zuzendaria, eta hizlariak, berriz, Juan Aznar, HDI Global SE Espainiako zuzendari nagusia, José María Álvarez-Cienfuegos, Partner at DAC Beachcroft LLP, eta Pilar Jiménez Manager-Risk Management / Bowring en Marsh.

Amaitzeko, Jon Barrutia EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanok itxi zuen ekitaldia, sektoreak gizartean duen balio soziala aldarrikatuz. Zalantzarik gabe, ezagutzak beteriko topaketa izan zen, non Espainiako arriskuen eta aseguruaren gerentziaren garrantzia azpimarratu zen. *J. Iñaki de la Peña*

UNIBASQ-ek nazioartekotzearen aipamena eman die Ekonomia eta Enpresa Fakultateko bi titulaziori

Ekonomia eta Enpresa Fakultateak eskainitako bi titulaziorik (Ekonomia Graduak eta Master in Economics: Empirical Applications and Policies masterrak) UNIBASQ Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren nazioarteko aipamena jaso dute.

Aipamen horrek titulazio horien nazioartekotzea aitortzen du. Ekonomiako graduak aukera ematen du kredituen % xx ingelesez ikasteko; horrez gain, ikasleen herenak truke programetan parte hartzen du. Master in Economics: Empirical Applications and Policies ingelesez eskaintzen ditu kredituen % 100, eta ikasleen % 43 beste herrialde batzuetatik datoz.

Lortutako kalitate zigiluaren

bidez, Ekonomia eta Enpresa Fakultateak egiten duen ahalegina saritu da, Nazioarteko profila duten ikasleak prestatzeko. Horiek horrela, 2020/2021 ikasturtetik aurrera, Ekonomia eta Enpresan gradu bikoitz berri bat emango da gure Fakultatean, osorik ingelesez. Gradu bikoitz berri hau ezarrita, orain arte bezala truke programen bidez datozen atzerriko ikasleak hartu ahal izateaz gain, gradu berri osoa gure artean ikastea erabakitzen duten beste ikasle batzuk ere onartu ahal izango ditugu. Zentroak nazioarteko proiektioan egindako ahaleginaren beste erakusgarri bat da.

Erabili edukiontzi egokiak!

Jakin beharrekoak:



- Kafe-makinetan saltzen diren botatzekoak diren edalontziak kartoiz osatuta daude batez ere. Polietilenozko geruza fin batek ere estaltzen ditu eta iragazgaitz bihurtzen ditu. Behar bezala birziklatzeko, edukiontzi urdinean edo horrelako ontziak berariaz jasotzen dituzten edukiontzietan utzi behar ditugu.

- Birziklatzen den plastikozko botila bakoitzeko, telebista bat 3 orduz piztuta izateko behar den energia au-

rretzen da, edo kontsumo txikiko 20 W-ko 5 lanpara behar dituzten energia 4 orduz.

- Botoi pila baten merkurioak 600.000 litro ur kutsa ditzake, hau da, urtebetean 3.000 biztanleko herri batek edo bizitza osoan 4 pertsonako familia batek behar duen uraren parekoa.

- Paper zaharretik abiatuta paper berria fabrikatzeak %30etik %55era energia gutxiago kontsumitzen du zuzenaz papera fabrikatzeak baino.



«Youth Employment PartnerSHIP» proiektu europarra (Gazte Enplegurako Elkarte)

«EAO II-ko Ainhoa Vega, Sara de la Rica eta Elene Allende Europako «Youth Employment PartnerSHIP» (Gazteen Enplegurako Elkarte) proiektuaren parte dira. Proiektu horrek honako hau du xede: gazteak beren lan ibilbidearen hasieran hobeto laneratzeko diseinatu diren enplegu politika aktiboek zenbaterainoko eragina duten neurtzea. UPV/EHU proiektu horretako bazkideetako bat da. Proiektua Islandia, Liechtenstein eta Norvegiatik etorritako dirulaguntza bati esker gauzatzen da. Espainia, Hungaria, Italia eta Poloniako hainbat bazkidek ere parte hartzen dute proiektuan. Azaroaren hasieran, Ainhoa Vega eta Elene Allende Erroman izan ziren, Italian, praktika kontratuen

inguruan egindako ebaluazioaren emaitzak aurkezten. Bertan, zenbait galderari erantzun zieten: praktika kontratuek balio al dute gazteen enplegarritasuna hobetzeko? Eta enpresetan duten egonkortasuna hobetzeko?

2020an, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea arduratuko da proiektuko gainerako bazkideak hartzeaz. Gainera, datorren urtean jarraipen bilera bat egingo da Bilbon, bai eta emaitzak zabaltzeko jardunaldi bat eta gazteen enpleguaren ebaluazioei buruzko bi prestakuntza tailer ere bai. Proiektuari buruzko informazio gehiago: <https://bit.ly/2PCrww>

Elene Allende

UPV/EHUK Nazio Batuen saria jaso du

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak MOOC 2019 sariak (Massive Online Open Courses edo online ikastaro masibo eta irekiak) irabazi ditu garapen jasangarriko soluzio sarearen (SDSN) atalean, Nazio Batuek (NBE) sortutako ekimen globalaren barruan. Saria «Monetización del Valor Social Integral Generado por las Organizaciones (Erakundeek sortutako Balio Sozial Integralaren Monetizazioa)» izeneko online ikastaro ireki eta doakoari esker jaso da. «UPV/EHUrentzat oso garrantzitsua da sari hau, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) aldeko apustu sendoa egina duelako, eta haren bidez, unibertsitateko irakaskuntza programen, profesionalen eta

metodoen kalitatea aitortzen delako. Eta, azkenik, mundu mailan liderra den erakunde baten eskutik jaso delako errekonozimendua», nabarmendu du Leire San Jose EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko irakasle eta proiektuaren liderretako batek.

<https://bit.ly/2S90834>



Albiste laburrak

Hitzaldia:

Joan den azaroaren 20an, «Enpresa ekonomia: Sarrera» ikasgaiaren barruan, hitzaldi bat izan genuen Jon Fernández Orbeako CEOaren eskutik. Hitzaldi hori Areto Nagusian egin zen, eta streaming bidez jarraitu ahal izan zen beste gela batzuetan.

Orbea enpresa 1840an hasi zen tailer txiki batekin, Euskal Herriko bihotzean, Eibarren, hain zuzen ere. Industria ardatz zuen hiri bateko lehen fabrika izatera iritsi zen. Arma fabrikatzaile gisa hasi zen, eta, armak negozio izateari utzi ziotenean, bizikletetarako hodiak muntatzen jarraitu zuten, goi gamako zein gama xumeagoko hodiak. Txapeladun handien eskutik aurrera egiten jarraitzen du enpresak, beti hobetuz, beti xehetasunaren bila. Hitzaldia oso interesgarria izan zen bertaratuentzat, gure inguruko enpresen lan ona aurrez aurre ikusteko aukera izan baitzuten. *Ana Blanco*

Workshop on Forecasting in Electricity Markets

2019ko uztailaren 11n eta 12an, merkatu elektrikoetako prezioen iragarpenen adituak direnen lehen topaketa egin zen. Workshop-a Aitor Ciarreta (Analisi Ekonomikoaren Oinarriak II) eta Ainhoa Zarraga (Ekonomia Aplikatua III) irakasleek antolatu zuten, Fakultate horretako Peru Muniainekin batera (Finantza Kuantitatiboak eta Ekonomia doktoretza programako doktoretza aurreko bekaduna). Programan 19 parte hartzaile izan ziren, eta horietatik 13 atzerriko unibertsitateetatik etorri ziren: Technological University Dublin (Irlanda), University of Verona (Italia), University of Duisburg-Essen (Alemania), University of Camerino (Italia), Wrocław University of Science and Technology (Polonia) eta Macquarie University (Australia). Topaketa horretan, zenbait merkatu elektrikoan aplikatzen diren eta gaur egun inpaktu handiko aldizkari espezializatuetan argitaratzen ari diren aurreikuspen estatistiko berrienak azaldu ziren.

Keynote speaker Ekonomia Energetikorako Elkarre Portugalarraren urteroko biltzarren 4. edizioan

Ekonomia Energetikorako Elkarre Portugalarraren urteroko biltzarren 4. edizioa urriaren 17tik 18ra bitartean egin zen, Covilhako Beira Interior Unibertsitatean. Edizio honetako gaia merkatu elektrikoetako eskariaren kudeaketa izan zen. Aitor Ciarreta EEFko irakasleak osoko saio bat eman zuen: «Efficient Demand Side Management: Theory and Applications». Bertan, eskariaren kudeaketa eraginkorren analisiari egindako ekarpen teorikoak berrikusi zituen. Halaber, ikuspegi teoriko eta aplikatu alternatibo bat proposatu zuen, kontsumitzaileen lehentasunak, merkaturatzaileen arteko ordezkapen-kostuak eta

merkatuan dagoen lehia maila kontutan hartzen dituen.

Aldaketak ikasgeletan

Geroz eta beharrezkoagoa da ikasgeletan altzari mugikorrek izatea, erosoagoak eta moldakorragoak baitira. Hori dela eta, Fakultateak urtean gela bat edo bi aldatzeko apustua egin du, aurrekontuak horretarako aukera ematen duen heinean.

2017/18 - 0.3 eta A2.1 gelak

2018/19 - 0.6 gela - Informatika gela bihurtu zen, 40 posturekin.

2019/20 - A0.9 gela, eta 2. lauhilekorako altzariak estreinatuko ditugu A0.10 gelan.

Altzariak aldatzearekin batera, ikasgelako fluoizente guztien ordez LED argiak jarriko ditugu, Fakultateak ingurumenarekiko duen konpromiso garbiarekin bat eginez.

Ekonomia eta Enpresa doktoregoko jardunaldiak

Irailaren 30etik urriaren 2ra bitartean, Ekonomia eta Enpresa Doktoregoko V. Jardunaldiak egin ziren. Honako hauek izan ziren antolatzaileak: Inmaculada Astorkiza (Integrazio Ekonomikoan doktoregoa), Jon Charterina eta Jon Landeta (Enpresa, Ezagutza eta Berrikuntza Zuzendaritzan doktoregoa), Marta Escapa (Ekonomian doktoregoa: Analisi Ekonomikoaren Tresnak) eta M. Araceli Garin (Finantza eta Ekonomia Kuantitatiboetan Doktoregoa/Quantitative Finance and Economics).

Irakasle eta ikertzaileen prestakuntza jardunaldia

Ekainaren 28an, hezkuntza berrikuntzako esperientziei buruzko prestakuntza jardunaldi bat egin genuen, eta bertan Ikerne del Valle eta Eva Emmanuel gure lankideek parte hartu zuten. Ikerne del Valle «Mathematica ekonomiaren irakaskuntzan integratzea. Inbertsioa ala gehiegizko gastua? ECOMath Taldea» gaia izan zuen hizpide, eta Eva Emmanuelek esperientzia honi buruz hitz egin zuen: «Unibertsitateko irakaskuntzan Twitter erabiltea: baterako sorkuntzan oinarritutako ikaskuntza-eredu baterantz». Gainera, Angel Fidalgo ere parte hartu zuen. Angel Fidalgo Madrilgo Unibertsitate Politeknikoaren Informazioaren Teknologien Berrikuntzako Laborategiko zuzendaria da. Meatze eta Energia Ingeniariaren Goi Eskola Teknikoa. Hezkuntza berrikuntzan dauden joerak eta ikasgelan aplikatu ditzakegunak azaldu zituzkigun.

